# MODELO B

## LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA
## TEST GALDETEGIA (GAITEGI OROKORRA)

1. **Konstituzioak honako hauek aldarrikatzen ditu antolamendu juridikoaren balio nagusitzat:**
   a. Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
   b. Askatasuna, justizia eta lehia askea.
   c. Askatasuna, berdintasuna eta aniztasun politiko eta sindikala.
   d. Askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna.

2. **Espainiako Nazioa osatzen duten nazionalitate eta herrialdeei dagokienez, zer aitortu eta bermatzen du konstituzioak?:**
   a. Autonomia eskubidea.
   b. Horien arteko elkartasun eskubidea, baina ez autonomia eskubidea politikoki ulertua.
   c. Askatasunez federatzeko edo konfederatzeko eskubidea.
   d. Autodeterminazio askerako eskubidea.

3. **Baieztapen hauetako bat OKERRA da. Zein?:**
   a. Konstituzioak onartzen du ezkontza desegin ahal izango dela.
   b. Konstituzioak ezartzen du gizonek eta emakumeek berdintasun juridiko osoz ezkontzeko eskubidea dutela.
   c. Konstituzioak Legearen esku uzten du ezkontideen eskubideen eta betebeharren zehaztapena.
   d. Konstituzioak ezartzen duenez, gizonek eta emakumeek adin nagusitasunera heltzean lortzen dituzte ezkontzeko adina eta gaitasuna.

4. **Eskariak egiteko eskubidea:**
   a. Espainiarren alde onartuta dago Konstituzioaren 30. artikuluan.
   b. Kasu jakin batzuetan erabili ahal izango da banaka
   c. Beti idatziz erabili beharko da.
   d. Ezingo da taldeka erabili.

5. **Ingurumenari dagokionez:**
   a. Eskubide gisa aitortuta dago Konstituzioaren 44. artikuluan.
   b. Konstituzioak ez du ezartzen hura zaintzeko betebeharra.
   c. Ingurumen eskubidea oinarrizkoa da pertsonentzat.
   d. Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea.

# MODELO B

6. **Berezko interes ekonomikoak izan eta interes horiek babesten dituzten elkarte profesionalak:**
   a. Egiaz, elkargo profesionalak dira
   b. Egiaz, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak dira.
   c. Haien barne egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.
   d. Ez daude Konstituzioan aurreikusiak.

7. **Konstituzioan kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteari buruz ezarrita dagoenaren arabera, legeak arautuko du:**
   a. Barne merkataritza.
   b. Kanpo merkataritza
   c. Zerbitzu publikoak adierazteko araubidea.
   d. Kexak eta erreklamazioak adierazteko araubidea.

8. **"Administrazio-herrikidetasuna" kontzeptuak, euskal herriaren Autonomia Estatutuaren 7. artikuluan jasoak, hau esan nahi du:**
   a. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen foru legediaren mende egotea
   b. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legedi zibilaren mende egotea.
   c. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritakoa izatea.
   d. Estatuko Lege Orokorren mendea egotea.

9. **Zer urtetan onartu zen Euskal Herriaren Autonomia Estatutua?**
   a. 1978an.
   b. 1979an.
   c. 1980an.
   d. 1981an.

10. **Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, euskal herria osatzen duten Lurralde Historikoetako bakoitzak, erkidegoaren baitan:**
    a. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde ahal izango ditu.
    b. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak berrezarri ahal izango ditu, hala badagokio.
    c. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak eguneratu ahal izango ditu, hala badagokio.
    d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

11. **Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriko herritarrek:**
    a. Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea dute.
    b. Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko betebeharra dute
    c. Gaztelania eta euskara jakiteko eskubidea eta erabiltzeko betebeharra dute.
    d. Gaztelania eta euskara jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.

**MODELO B**

**12. Justizia Administrazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku egongo dira:**

- **a.** Botere Judizialaren eta Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.
- **b.** Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.
- **c.** Botere Judizialaren Lege Organikoek eta Lurralde Historikoen Legeek Eusko Jaurlaritzari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.
- **d.** Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**13. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, lege bidez garatu eta betearazteko eskumenen kasuan:**

- **a.** Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
- **b.** Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Lurralde Historikoari, berriz, horiek lege bidez garatu eta betearaztea.
- **c.** Estatuari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, horiek arau bidez garatzea.
- **d.** Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Lurralde Historikoei, berriz, horiek arau bidez garatzea.

**14. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (10. artikulua), eskumen hauetako zein da esklusiboa?:**

- **a.** Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
- **b.** Ingurumena eta ekologia.
- **c.** Kredituaren antolamendua, bankuak eta aseguruak.
- **d.** Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.

**15. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. artikuluaren arabera, Euskal Botere Publikoek, beren eskumenen esparruan:**

- **a.** Euskal herritarren eskubideen erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- **b.** Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- **c.** Euskal herritarren betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- **d.** Euskal herritarren eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

**16. Nork osatzen dute Udalerri bateko biztanleria?**

- **a.** Udal erroldan inskribatuta dauden eta ez dauden pertsonek.
- **b.** Udal erroldan inskribatuta dauden pertsonek.
- **c.** Helbideratuek, behin-behineko egoiliarrek eta atzerritarrek.
- **d.** Udal erroldan inskribatuta dauden adinez nagusiek.

**MODELO B**

**17. Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen arabera, eskumen hauetako zein dagokio udalbatzari?:**

- **a.** Udal zerbitzuak eta udal obrak zuzentzea, ikuskatzea eta sustatzea.
- **b.** Alkateordeak izendatzea.
- **c.** Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
- **d.** Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**18. Toki Araubidearen Oinarrien Legearen arabera, biztanleria handiko Udalerrien antolamendu araubidea aplikatuko zaie:**

- **a.** 50.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
- **b.** 150.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
- **c.** Probintziako hiriburu, autonomietako hiriburu edo autonomia erakundeen egoitza diren udalerriei, bertako legebiltzarrek horrela erabakitzen badute, udal bakoitzaren ekimenez.
- **d.** 75.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.

**19. Adierazi zein den erantzun <u>OKERRA</u>. Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 133. artikuluaren arabera, ekonomiaren eta finantzen kudeaketak irizpide hauek beteko ditu:**

- **a.** Zerbitzuen kostuen jarraipena ez da sartzen eskakizun bezala.
- **b.** Toki ogasunak arautzen dituen Legean kontabilitateari buruz jasotako aurreikuspenetara lotu behar da nolanahi ere kontabilitatea.
- **c.** Helburu bezala aurrekontuaren egonkortasuna zaintzea, hori arautu dezan legedian xedatutakoarekin bat etorriz.
- **d.** Ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren kontabilitatea eta ikuskapena banatuta izatea.

**20. Alkateak eta zinegotziek osatuta, udalbatza edo osoko bilkura:**

- **a.** Herritarrek udal gobernuan duten ordezkaritza politikoaren organo gorena da
- **b.** Alkateak egingo du osoko bilkurarako deia eta bera izango da buru, Lege honetan eta hauteskunde legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- **c.** Osoko bilkurak erregelamendua egingo du beretzat, eta organikoa izango da.
- **d.** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**21. Alkateak eskuordetu daitezkeen eskumenak eskuordetu ahal izango ditu:**

- **a.** Dekretu bidez.
- **b.** Zerbitzu aginduen bidez.
- **c.** Bando bidez.
- **d.** Legegintzako dekretu bidez.

**MODELO B**

**22. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak erabakitzeko organoak izango du:**

a. Kide kopuru bikoitia; gutxienez lau izango dira, eta Udalbatzak izendatuko ditu.
b. Kide kopuru bakoitia; gutxienez hiru izango dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrak izendatuko ditu.
c. Kide kopuru bakoitia; gutxienez hiru izango dira, eta Udalbatzak izendatuko ditu.
d. Kide kopuru bakoitia; gutxienez bost izango dira, eta alkateak izendatuko ditu.

**23. Bilboko udaleko araudi organikoaren arabera, bozeramaileen batzordea:**

a. Udalbatzako eztabaida organoa da.
b. Udalbatzak eta Tokiko Gobernu Batzordeak kontsultarako duten organoa da.
c. Udalbatzako presidenteak kontsultarako duen organoa da.
d. Udalbatzako bilerak kudeatzeko organoa da.

**24. Arau Nagusi gisa, Bilboko Udaleko udalbatzak honela hartuko ditu erabakiak:**

a. Bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez.
b. Gehiengo osoaren bidez.
c. Gehiengo kualifikatuaren bidez.
d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**25. Bilboko Udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, aldi berean saileko zuzendaritzak antolatu ahal izango dira:**

a. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sekzioetan, negoziatuetan eta laguntza unitateetan.
b. Zuzendariordetzetan, sailataletan, sekzioetan eta beheragoko mailako edo antzeko beste unitate batzuetan.
c. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan, sekzioetan eta kudeaketa unitateetan.
d. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan eta negoziatuetan.

**26. Bilboko Udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, udalerria barrutitan banatzea:**

a. Gobernu Batzordeari dagokio.
b. Udalbatzari dagokio.
c. Alkateari dagokio.
d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

## MODELO B

**27. Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka gorako errekurtsoa soilik aurkeztu ahalko da.**

- **a.** Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka gorako errekurtsoa soilik aurkeztu ahalko da..
- **b.** Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa soilik aurkeztu ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean azaldutako moduan.
- **c.** Ez dute administrazio bidea amaitzen, eta haien aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahalko da.
- **d.** Ez dute administrazio bidea amaitzen.

**28. Bilboko Udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, tokiko gobernu batzordeak:**

- **a.** Udalbatzak eskuordetutako eginkizun politiko, administratibo eta betearazleak beteko ditu.
- **b.** Legearen arabera dituen eginkizun betearazle eta administratiboak beteko ditu..
- **c.** Udalbatzak eskuordetutako eginkizun tekniko, politiko eta administratiboak beteko ditu
- **d.** Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**29. Bilboko Udaleko udalbatzaren Araudi Organikoaren arabera, V. kapituluan araututa dagoen Bilboko Udaleko aurrekontu orokorren egitasmoa:**

- **a.** Kapitulu honetan araupetutako prozedura orokorraren arabera izapidetuko da, eta kapituluak ezarri ez duenari dagokionez, Udalbatzak erabakiak hartzeko prozedura komunari dagozkion xedapenak ezarriko dira bestearen osagarri.
- **b.** Kapitulu honetan araupetutako prozedura bereziaren arabera izapidetuko da, eta kapituluak ezarri ez duenari dagokionez, Udalbatzak erabakiak hartzeko prozedura komunari dagozkion xedapenak ezarriko dira bestearen osagarri.
- **c.** Aurrekontuen Lege Orokorrean eta garatzeko gainerako legeetan araupetutako prozedura orokorraren arabera izapidetuko da.
- **d.** Tokiko Ogasunak Arautzeko Legean araupetutako prozedura orokorraren arabera izapidetuko da.

**30. Bilboko Udaleko udalbatzaren Araudi Organikoaren arabera, funtzio hauetako zein <u>EZ</u> dagokio udalbatzako idazkari nagusiari?:**

- **a.** Udalbatzaren saioak deitzea eta horien buru izatea.
- **b.** Udalbatzaren eta bertako batzordeen fede publikoa ematea.
- **c.** Osoko bilkuraren ebazpenak jakinaraztea, argitaratzea eta betearaztea.
- **d.** Udalbatzari eta batzordeei lege aholkularitza ematea.

## MODELO B

**31. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezartzen du erregelamenduz prozeduraren zenbait berezitasun ezarri ahal izango direla. zeri buruzkoak izan daitezke?:**

a. Organo eskudunak..
b. Gaiagatik zehazki dagokion prozeduraren epeak.
c. Hasteko eta amaitzeko moduak.
d. Aurreko horiek denak, eta argitaratzeko modua eta eskatu beharreko txostenak.

**32. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, arau orokor gisa, adierazi Tokiko Erakundeek zein hizkuntzatan izapidetuko dituzten administrazio prozedurak:**

a. Gaztelaniaz.
b. Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.
c. Kasu honetan, dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.
d. Kasu honetan, hizkuntzaren erabilera tokiko erakundeak aukeratuko du.

**33. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 33. artikuluaren arabera, zein errekurtso aurkeztu ahal izango da prozedura presaz izapidetzekoa dela deklaratzen duen erabakiaren kontra?:**

a. Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Akordioa agindutako organoaren aurrean.
b. Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkian goragoko mailako organo aginduemailearen aurrean.
c. Ezin da errekurtsorik aurkeztu, prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitekeenari kalterik egin gabe.
d. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

**34. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluaren arabera, zein da ebazpen espresua jakinarazteko epea, prozedurak arautzen duen araua baldin badu baino ez badu epea finkatzen?:**

a. Dagokion prozedura arautzeko arauak ezarritako epea.
b. 3 hilabeteko epea.
c. 6 hilabeteko epea.
d. Urtebeteko epea.

**35. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 40. artikuluaren arabera, interesdunei jakinaraziko zaizkie:**

a. Beren eskubide eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazioegintzak.
b. Beren oinarrizko eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta izapide-egintzak.
c. Beren oinarrizko eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak.
d. Beren eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak.

## MODELO B

**36. Noiz jotzen da egintzat administrazio-egintza baten bitarteko elektronikozko jakinarazpena?:**

a. Interesdunaren posta elektronikoan jasotakoan.
b. Haien edukira sartzen den unean.
c. Udaleko aplikazio informatikoetatik egiten denean.
d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**37. Hauetako zein ez da administrazio-errekurtso bat EZ onartzeko arrazoia:**

a. Errekurtso-jartzaileak errekurtsoari okerreko kalifikazioa jartzea edo kalifikaziorik ez jartzea, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.
b. Errekurtso-jartzailearen legitimaziorik eza.
c. Errekurtsoak funtsik ez izatea, nabarmen.
d. Administrazio-organoak eskumenik ez izatea, eskuduna beste administrazio publiko batekoa denean.

**38. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6KO 6/1989 Legearen 69. artikuluaren arabera, funtzionarioek eskubidea izango dute:**

a. Karguan eta beren lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzekoa, lege honetan adierazten diren mugen eta baldintzen barruan.
b. Karguan eta beren lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzekoa, mugarik gabe.
c. Karguan jarraitzekoa, baina lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzekoa ez.
d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**39. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 71. artikuluaren arabera, baimenak eman ahal izango dira:**

a. Funtzionarioa kide deneko eta Kidego edo Eskalari dagozkion egitekoekin artezko lotura duten gaiei buruzko ikasketak egiteko.
b. Norbere gauzetarako, inolako ordainketarik gabe.
c. Administrazioaren beraren edo beste batzuen Kidego edo Eskaletan sartzeko jarritako ikastaro berezietan edo praktika-aldietan parte hartzeko.
d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

**40. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 77. artikuluaren arabera, funtzionarioek:**

a. Lege horretan jarritako lansari-gaiengatik bakarrik jaso ditzakete lansariak.
b. Lege horretan eta beste osagarrietan jarritako lansari-gaiengatik jaso ditzakete lansariak.
c. Bidezko iritzitako lansari-gaiengatik jaso ditzakete lansariak.
d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

## MODELO B

**41. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 83. artikuluaren arabera, hutsegite oso larriak dira:**

a. Administratuak aintzakotzat ez hartzeagatiko hutsegite larria.
b. Arraza, sexu, erlijio, hizkuntza, iritzi, jaioleku edo auzo edo beste edozein inguruabar sozial edo pertsonalen ondoriozko bereizkeria dakarren jarduera oro.
c. Goragokoen zerbitzuei buruzko aginduak edo jarraibideak ez betetzea.
d. Lantokietan iskanbilak sortzea edo horietan parte hartzea.

**42. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 80. artikuluaren arabera, lege honetan aurreikusitako kontzeptuengatik funtzionario bakoitzak jaso dezakeen zenbatekoa:**

a. Soilik sindikatuetako ordezkariek ezagutu ahal izango dute.
b. Administrazio bakoitzaren zerbitzuko langile guztiek eta sindikatuetako ordezkariek ezagutu ahal izango dute.
c. Ez du inork ezagutuko.
d. Aurreko guztiak okerrak dira.

**43. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 87. artikuluaren arabera, zerbitzutik behin betiko aldentzea:**

a. Inoiz ez zaie ezarriko funtzionarioei.
b. Hutsegiteak oso larriak direnean ezarriko zaie.
c. Hutsegiteak oso larriak eta larriak direnean ezarriko zaie.
d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

**44. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 89. artikuluaren arabera, zentzapide-erantzukizuna ezabatuko da:**

a. Soilik zigorra betez.
b. Zigorra betez, hilez gero, hutsegite edo zigorrak indarra galduz gero, edo zigorra barkatuz edo amnistia emanez.
c. Zigorra betez, hilez gero, hutsegite edo zigorrak indarra galduz gero, baina inoiz ez zigorra barkatuz edo amnistia emanez.
d. Ez da inoiz ezabatzen.

**45. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen 2. artikuluaren arabera, zein da euskal herriko hizkuntza propioa:**

a. Euskara.
b. Euskara, baina gaztelania ere erabili daiteke hizkuntza ofizial bezala.
c. Euskara, eta hizkuntza ofiziala ere bada, gaztelaniarekin batera.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**MODELO B**

**46. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, Euskara da:**
- **a.** Euskal Herriko hizkuntza propioa, gaztelaniarekin batera.
- **b.** Euskal Herriko hizkuntza propio ofizial bakarra.
- **c.** Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra.
- **d.** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**47. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du:**
- **a.** Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok.
- **b.** Bide publikoko trafikoko seinale eta ikur orok.
- **c.** Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herri-agintariek erabiltzeko eredu ofizial orok.
- **d.** Erantzun guztiak zuzenak dira.

**48. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, helduen euskalduntzeari eta euskaldunen alfabetatzeari buruzko araubidea finkatuko du:**
- **a.** Eusko Jaurlaritzaren dekretuak.
- **b.** Eusko Legebiltzarraren legeak.
- **c.** Eusko Jaurlaritzaren legegintza dekretuak.
- **d.** Erantzun guztiak okerrak dira.

**49. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, herritar guztiek justizia administrazioarekiko harremanetan:**
- **a.** Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
- **b.** Euskal Herriko hizkuntza propioaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
- **c.** Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
- **d.** Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**50. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, baieztapen hauetako zein da zuzena?:**
- **a.** Herri-aginteak herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzen saiatuko dira.
- **b.** Euskal Herriko herritar guztiek hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dute, nahiz ahoz nahiz idatziz.
- **c.** Herri-aginteek hizkuntza eskubideak ziurtatuko dituzte nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz hemendik kanpo.
- **d.** Erantzun guztiak okerrak dira.

# MODELO B

**51. Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen xedea da:**

a. Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatuz.
b. Laneko istripuen estatistikak sustatu eta garatzea.
c. Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezarriz.
d. Printzipio orokorrak ezartzea, enpresariek arriskudun lanak kendu ditzaten.

**52. Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, zer dira lanean edo lana delabide izandako gaixotasun, patologia edo lesioak:**

a. Langileen prebisioa.
b. Lan-arrisku larri eta hur-hurrekoa.
c. Lanetik eratorritako kalteak.
d. Langileen babesa.

**53. Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, zer da langileak aldean eramateko edo erabiltzeko edozein ekipamendu laneko arriskutik edo arriskuetatik babesteko:**

a. Babesteko arriskuen azterketa.
b. Laneko arropa.
c. Lan-arriskua.
d. Banakako babes-ekipamendua.

**54. Lan-Arriskuen Prebentzioari Buruzko Legearen arabera, prebentzio arloko politikak honakoen parte hartzearekin egingo dira:**

a. Enpresaburuak.
b. Langileak.
c. Autonomia erkidegoko enpresa-erakundeak eta sindikatuak.
d. Enpresaburuak eta langileak.

**55. Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, prebentzio-zerbitzua eratzeko enpresaburuak izendatutako langileek:**

a. Izan beharko dituzte behar besteko gaitasuna, denbora eta tresneria egokia eta behar beste izan beharko dira.
b. Enpresaburuak ahalbidetu beharko du izendatutako langileek eskura izatea beharrezko informazioa eta agiriak.
c. Ezin izango dute inolako galerarik jasan, lanbide-arriskuak babesteko eta prebenitzeko enpresan duten jardueren ondorioz.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

## MODELO B

**56. Lan-Arriskuen Prebentzioari Buruzko Legearen arabera, prebentzio-baliabideak egon beharko dira:**

- **a.** Suteen eta Larrialdien Prebentziorako Ikuskatzailetzak agintzen duenean.
- **b.** Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak agintzen duenean.
- **c.** Ogasun eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak agintzen duenean.
- **d.** Babes Zibil eta Larrialdien Ikuskatzailetzak agintzen duenean.

**57. Sektore Publikoko Kontratuen xedeak:**

- **a.** Zehaztua izan beharko du.
- **b.** Zehaztugabea izan beharko du.
- **c.** Inespezifikoa izan beharko du.
- **d.** Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**58. Xedetzat jarduera baten garapenean egiteko prestazioak dituzten kontratuak:**

- **a.** Kontratu mistoak dira.
- **b.** Obra-kontratuak dira.
- **c.** Hornidura-kontratuak dira.
- **d.** Zerbitzu-kontratuak dira.

**59. Markatu erantzun zuzena:**

- **a.** Kontratu txikitzat joko dira 15.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.
- **b.** Kontratu txikitzat joko dira 50.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.
- **c.** Kontratu txikitzat joko dira 40.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.
- **d.** Kontratu txikitzat joko dira 60.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.

**60. Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria:**

- **a.** Gorte Nagusiek onartu zuten.
- **b.** Europako Parlamentuak onartu zuen.
- **c.** Nazioko gobernuak onartu zuen.
- **d.** Europako Batzordeak onartu zuen.

**61. Kontratuaren esleipenduna aukeratzeko irizpide bakarra prezioa denean:**

- **a.** Esleipena berrogeita bost eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
- **b.** Esleipena ehun eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
- **c.** Esleipena hamabost eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
- **d.** Esleipena hogeita hamar eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

# MODELO B

**62. Obren eta Zerbitzuen emakidetan epe orokorra soilik kasu hauetan murriztu ahal izango da:**

- **a.** Aldez aurreko informazioko iragarkia bidalia izanez gero.
- **b.** Proposamenen aurkezpenerako epe orokorra ezin praktikatuzkoa izanez gero urgentziazko egoera bat delako.
- **c.** Kontratazio organoak eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea onartuz gero.
- **d.** Ezin da epe hori murriztu ezein kasutan.

**63. Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriak:**

- **a.** Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko Zuzentarauak.
- **b.** Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko Zuzentarauak.
- **c.** Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko Zuzentarauak.
- **d.** Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko Zuzentarauak.

**64. <u>EZ</u> dira botere esleitzailetzat joko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedeetarako:**

- **a.** Administrazio Publikoak.
- **b.** Fundazio publikoak.
- **c.** Alderdi politikoak.
- **d.** Eliza.

**MODELO B**

**65. Toki Administrazioaren esparruan:**

a. Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
b. Langile guztien aukeraketa enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
c. Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
d. Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.

**66. Enplegu Publikorako eskaintzaren onespenak konprometitutako lanpostuei dagozkien aukeraketa prozesuetarako deialdiak egiteko betebeharra ekarriko du...:**

a. ... eta are % 5eko gehigarri bat ere.
b. ... eta are % 10eko gehigarri bat ere.
c. ... eta are % 3ko gehigarri bat ere.
d. ... eta are % 7ko gehigarri bat ere.

**67. Administrazio Publikoek Enplegu Planak egin ahal izango dituzte, honako hauei erreferentzia eginez:**

a. Funtzionarioak soilik.
b. Lan-kontratuko langileak soilik.
c. Aldi baterako langileak eta funtzionarioak.
d. Funtzionarioak eta langileak.

**68. Langile berrien sarrerako deialdietan hutsik geratutako plazek:**

a. Funtzionario izaera badutenen arteko aldez aurreko lehiaketa egin beharra eskatuko dute.
b. Ez dute funtzionario izaera badutenen aldez aurreko lehiaketarik beharko.
c. Funtzionario izaera bi urte baino gutxiagoko antzinatasunarekin dutenen arteko aldez aurreko lehiaketa egin beharra eskatuko dute.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

# MODELO B

**69. Langileen erregistroari dagokionez, Toki Erakundeek behar adina baliabide finantzario edo tekniko ez dutenean:**

a. Autonomia Erkidegoek eta haiek soilik lagunduko diete.

b. Estatuko Administrazio Orokorrak eta hark soilik lagunduko die.

c. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek lagunduko diete, 5.000 biztanle baino gutxiago edo 2.999.999 euro baino gutxiagoko aurrekontua baldin badute.

d. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek lagunduko diete.

**70. EPOETB-en arabera, zer kudeaketa tresnaren bidez aurreikusi ahal izango dituzte Administrazio Publikoek langileak hartzeko aukeren eta beharren azterketak?:**

a. Enplegu Publikorako Eskaintzaren bidez.

b. Giza baliabideen antolamendu Planen bidez.

c. Lanpostuen Zerrenden bidez.

d. Langileen birbanaketaren bidez.

**71. Toki Administrazioko pertsonal guztiaren plantillak eta lanpostuak urtero finkatuko dira... :**

a. Tresna urbanistikoen bidez.

b. Foru administrazioarekiko hitzarmenen bidez.

c. Aurrekontuen bidez.

d. Alkatetzaren ebazpenen bidez.

**72. Ekainaren 6ko 1405/1986 Errege Dekretuaren arabera, zeinaren bidez onesten diren pertsonalaren erregistro zentralaren araudia eta gainerako Administrazio Publikoekiko koordinazio arauak, nahitaez apuntatu beharko 125.orria 184tik dira Administrazio guztietako pertsonalaren erregistroan honako ekintza eta ebazpen hauek:**

a. Gradu pertsonala hartzea eta haren aldaketak.

b. Itzulerak.

c. Sariak, zigorrak, kondekorazioak eta aipamenak.

d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

## MODELO B

**73. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, plantillak:**

a. Arrazionaltasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu ditzakete.
b. Arrazionaltasun, ekonomia eta fede onaren printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu.
c. Arrazionaltasun, ekonomia eta fede onaren printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu ditzakete.
d. Arrazionaltasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu.

**74. Araubide Erkideko Udalerrietan, kudeaketa ekonomikofinantzarioaren zein aurrekontu-kudeaketaren kontrola eta barne fiskalizazioa, eta kontabilitatea, diruzaintza eta dirubilketa:**

a. Hautazko funtzio publikoak dira.
b. Nahitaezko funtzio publikoak dira, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan izan ezik.
c. Nahitaezko funtzio publikoak dira.
d. Nahitaezko funtzio publikoak dira, Udal Araudi Organikoak hala ezartzen baldin badu soilik.

**75. Tokiko Funtzio Publikorako sarbideko proben deialdien eta toki administrazioko lanpostuen hornidurarako lehiaketen iragarkiak argitaratu beharko dira:**

a. Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.
b. Probintziako Aldizkari Ofizialean, Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.
c. Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean.
d. Estatuko Aldizkari Ofizialean.

## MODELO B

**76. Toki Administrazioko lanpostuen hornidurarako deialdietan parte har dezake:**

a. Deialdia egiten duen erakundeko funtzionarioek soilik.
b. Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, kasu guztietan.
c. Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, haien parte-hartzea lanpostuen zerrendek ezarritakoaren mende geratzen delarik.
d. Edozein administrazio publikotako funtzionarioek, haien parte-hartzea aurrekontu ereduek ezarritakoaren mende geratzen delarik.

**77. Aukeratu erantzun zuzena Araubide Erkideko Udalerrietako behin-behineko langileei dagokienez:**

a. Haiek izendatzeko eta haiei lanpostua utzaratzeko Udalbatzaren baimena behar da.
b. Haiek izendatzea eta haiei lanpostua utzaraztea Alkateari dagokio.
c. Lanpostua automatikoki utzarazten zaie kasu guztietan konfiantza funtzioa edo aholkularitza eskaintzen dioten autoritatearen kargu-uztea edo haren agintearen iraungitzea gertatzen baldin bada.
d. b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**78. Administrazio Publikoen Zerbitzuan dagoen Pertsonalaren Bateraezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legea:**

a. Ezin zaio aplikatu tokiko korporazioen zerbitzura dauden langileei.
b. Tokiko korporazioen eta haien mendeko Organismoen zerbitzura dauden langileei aplika dakieke.
c. Tokiko korporazioen zerbitzura dauden langileei aplika dakieke, baina ez haien mendeko Organismoen zerbitzura daudenei.
d. Tokiko korporazioen mendeko Organismoen zerbitzura dauden langileei aplika dakieke, baina ez tokiko korporazioen zerbitzura daudenei.

**79. Toki Administrazioan lan egiten duten Gaikuntza Nazionalik GABEKO karrerako funtzionarioak eskala hauetan daude integratuta:**

a. Administrazio Orokorrekoa eta Administrazio Berezikoa.
b. Teknikoa, Kudeaketakoa, Administraziokoa, Laguntzailea eta Mendekoa.
c. Teknikoa eta Zerbitzu Berezietakoa.
d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**80. Udalerrietan, lanpostuen zerrenda onartzeko eskuduntza duen organoa da:**

a. Udalbatza, kasu guztietan.
b. Udalbatza Araudi erkideko udalerrietan eta Tokiko Gobernu Batzarra Biztanleria Handiko Udalerrietan.
c. Tokiko Gobernu Batzarra, kasu guztietan.
d. Tokiko Gobernu Batzarra Araudi erkideko udalerrietan eta Udalbatza Biztanleria Handiko Udalerrietan.

# MODELO B

## ERRESERBAKO GALDERAK

**81. Zertan oinarritzen da Konstituzioa?:**

a. Espainiako nazioaren batasunean.
b. Espainiako nazioa osatzen duten herri eta nazionalitate guztien batasun konpromisoan.
c. Espainiako nazioaren batasun zatiezinean.
d. Espainiako nazioa osatzen duten herrien aniztasunean.

**82. Autonomia Estatutuaren 9. artikuluaren arabera, Euskal Herriko herritarren eskubideak eta betebeharrak:**

a. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira.
b. Lurralde Historikoen Legean finkatutakoak dira.
c. Konstituzioan finkatutakoak dira.
d. Ekonomia Itunean finkatutakoak dira.

**83. Ez da Udalerriaren osagai bat:**

a. Lurraldea.
b. Biztanleria.
c. Udala.
d. Antolaketa.

**84. Adierazi eskumen hauetako zein EZ den Tokiko Gobernu batzarrarena:**

a. Alkateordeak eta barrutietako lehendakariak izendatzea eta kargutik kentzea.
b. Aurrekontu proiektua onestea.
c. Edozein lizentzia mota ematea.
d. Lanpostuen zerrenda onestea.

**85. Bilboko Udaleko udalbatzaren araudi organikoaren xedea da:**

a. Bilboko Udaleko Udalbatzaren, bertako batzordeen eta Tokiko Gobernu Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea.
b. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita udaleko zinegotzien estatutua ezartzea ere.
c. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita Udalbatza osatzen duten talde politikoen estatutua ezartzea ere.
d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**MODELO B**

**86. Bilboko Udaleko Araudi Organikoaren arabera, bozketak izan daitezke:**

a. Arruntak, ezohikoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
b. Arruntak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
c. Arruntak, izenezkoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
d. Arruntak, izenezkoak eta sekretuak.

**87. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, aukera hauetako zein sartzen da Sektore Publikoan?:**

a. Estatuaren Administrazio Orokorra.
b. Autonomia erkidegoen administrazioak.
c. Toki administrazioa osatzen duten entitateak.
d. Aurreko guztiek eta besteren batek osatzen dute Sektore Publikoa, aipatutako Legearen arabera.

**88. Administrazio Publikoen administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio guzti guztien erregistro elektronikoek funtsezko ezaugarri bat bete behar dute:**

a. Teknikoki elkar trukatzeko modukoak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenak eta edozein erregistrotan aurkeztutako agiriak telematikoki igortzea bermatzeko ere.
b. Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa bermatzeko, eta orobat erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko.
c. Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa dena delakoa izan arren.
d. Normalizatuta egon behar dira.

**89. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 73. artikuluaren arabera, funtzionarioen betebeharrak dira:**

a. Betebeharretan aritzean indarrean dagoen ordenamendu juridikoa betetzea.
b. Izendatuak dituzten betebeharrak behar bezala ez burutu eta interes orokorrak partzialki eta subjektiboki zerbitzatzea.
c. Beren nagusiekiko lankidetza eta horiekiko harremanetan behar den bezalako errespetua eta horiek emandako oharrak ez betetzea.
d. Beren nagusiekiko lankidetza eta horiekiko harremanetan behar den bezalako tratua, horiei lanak egitea eta eginbeharrak ez betetzea erraztuz.

## MODELO B

**90. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 75. artikuluaren arabera, funtzionarioek:**

**a.** Eman zaizkien eginbeharren erantzukizunik ez dute izango.
**b.** Eman zaizkien eginbeharren erantzukizuna izango dute.
**c.** Eman ez zaizkien eginbeharren erantzukizuna izango dute.
**d.** Aurreko guztiak okerrak dira.

**91. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, herri-aginteek erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiek egon beharko dute:**

**a.** Soilik euskaraz idatzita.
**b.** Bi hizkuntzetan idatzita.
**c.** Soilik gaztelaniaz idatzita.
**d.** Erantzun guztiak zuzenak dira.

**92. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, helduen euskalduntzeari eta euskaldunen alfabetatzeari buruzko araubidea finkatuko du:**

**a.** Eusko Jaurlaritzaren dekretuak.
**b.** Eusko Legebiltzarraren legeak.
**c.** Eusko Jaurlaritzaren legegintza dekretuak.
**d.** Erantzun guztiak okerrak dira.

**93. Nork agintzen die Botere Publikoei laneko segurtasuna eta higienea zaintzeko?:**

**a.** Laneko segurtasunak eta higieneak.
**b.** Dagokion autonomia erkidegoak.
**c.** Espainiako Konstituzioak.
**d.** Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak.

**94. Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, lanean erabilitako edozein makina, tramankulu, tresna edo instalazio da:**

**a.** Lan-ekipamendua.
**b.** Langilearen arriskuen prebentzioa.
**c.** Laneko prebentzioa.
**d.** Lan-arriskua.

**95. Kontratazio Publikoari buruzko araudi berria noiz sartu zen indarrean:**

**a.** 2015ean.
**b.** 2016an.
**c.** Ez dago indarrean oraindik.
**d.** 2018an.

**MODELO B**

**96. Arautze harmonizatuaren mende daude balio estimatutzat kopuru hau edo handiagoa duten hornidura kontratuak:**

- **a.** 10.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrak esleitutako kontratuen kasuan.
- **b.** 135.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrak esleitutako kontratuen kasuan.
- **c.** 100.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrak esleitutako kontratuen kasuan.
- **d.** 50.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrak esleitutako kontratuen kasuan.

**97. Honako baieztapen hauetatik, zein da egia?:**

- **a.** Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- **b.** Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- **c.** Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.
- **d.** Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**98. Langileen barne promozioko eta prestakuntzako neurriak eta derrigorrezko mugikortasunekoak giza baliabideen ordenazio plan batean hitzar daitezke?:**

- **a.** Ez.
- **b.** Bai.
- **c.** Bai, derrigorrezko mugikortasuna izan ezik.
- **d.** Bai, prestakuntza profesionala izan ezik.

**99. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2KO 7/1985 Legearen 89. artikuluaren arabera, Toki Erakundeen zerbitzuan dagoen pertsonala honako hauekin osatuko da:**

- **a.** Karrerako funtzionarioak eta lan-zuzenbidepean kontratatutakoak.
- **b.** Karrerako funtzionarioak eta behin-behineko langileak.
- **c.** Karrerako funtzionarioak, lan-zuzenbidepean kontratatutakoak eta behinbehineko langileak.
- **d.** Karrerako funtzionarioak, lan-zuzenbidepean kontratatutakoak eta zuzendaritzako pertsonal profesionala.

**MODELO B**

**100. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera:**

- **a.** Tokiko korporazioek publikoki argitaratuko dute beren lan eskaintza, Estatuko oinarrizko araudian zehaztutako irizpideei lotuta.
- **b.** Tokiko korporazioek publikoki argitaratuko dute beren lan eskaintza, Estatuko oinarrizko araudian zehaztutako irizpideetara lotu beharrik gabe.
- **c.** Tokiko korporazioek pribatuki argitaratuko dute beren lan eskaintza, Estatuko oinarrizko araudian zehaztutako irizpideei lotuta.
- **d.** Tokiko korporazioek pribatuki argitaratuko dute beren lan eskaintza, Estatuko oinarrizko araudian zehaztutako irizpideetara lotu beharrik gabe.

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# ERANTZUN ORRIA
# HOJA DE RESPUESTAS

1. ABIZENA / 1er APELLIDO: BILBAO EKINTZA
2. ABIZENA / 2º APELLIDO: PLANTILLA DE JURÍDICO Y CONTRATACIÓN,
IZENA / NOMBRE: PROMOCIÓN EXTERIOR Y MARKETING
NAN / DNI:
DATA / FECHA:
KIDEGO EDO LANPOSTUA / CUERPO O PLAZA:

SINADURA / FIRMA

Sinatu laukitik atera gabe / Firmar sin salir del cuadro

MARKATZE ARGIBIDEAK
INSTRUCCIONES DE MARCADO

honela ez markatu
así no marque

honela markatu
marque así

NAN / DNI

Azterketa eredua / Modelo de examen: A ● B ○

| Nº | | Nº | | Nº | | Nº | | Nº | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | A | 21 | A | 41 | B | 61 | C | 81 | C |
| 2 | A | 22 | C | 42 | B | 62 | C | 82 | C |
| 3 | D | 23 | C | 43 | B | 63 | A | 83 | C |
| 4 | B | 24 | A | 44 | B | 64 | D | 84 | A |
| 5 | D | 25 | B | 45 | A | 65 | A | 85 | B |
| 6 | C | 26 | B | 46 | B | 66 | B | 86 | D |
| 7 | A | 27 | B | 47 | D | 67 | D | 87 | D |
| 8 | C | 28 | B | 48 | B | 68 | B | 88 | B |
| 9 | B | 29 | B | 49 | C | 69 | D | 89 | A |
| 10 | D | 30 | A | 50 | B | 70 | B | 90 | B |
| 11 | A | 31 | D | 51 | A | 71 | C | 91 | B |
| 12 | B | 32 | C | 52 | C | 72 | D | 92 | B |
| 13 | A | 33 | C | 53 | D | 73 | D | 93 | C |
| 14 | A | 34 | B | 54 | D | 74 | C | 94 | A |
| 15 | B | 35 | A | 55 | D | 75 | D | 95 | D |
| 16 | B | 36 | B | 56 | B | 76 | C | 96 | B |
| 17 | C | 37 | A | 57 | A | 77 | D | 97 | A |
| 18 | C | 38 | A | 58 | D | 78 | B | 98 | B |
| 19 | A | 39 | D | 59 | C | 79 | A | 99 | C |
| 20 | D | 40 | A | 60 | A | 80 | B | 100 | A |

Certificado SW349 ©Copyright 2019 Dara Informática SLU Todos los derechos reservados. http://www.dara.es